



ALBOAN

ONG promovida por los jesuitas

Emakume Ausarten aldeko 5. Lasterketa solidarioan izena emateko epea zabaldu da

Martxoaren 19an Gasteizen burutuko da

Gasteiz, otsailaren 14a.- Datorren martxoaren 19an Emakume Ausarten aldeko 5. Lasterketa solidarioa izango da Gasteizen. Ekimen honen bitartez, euren bizitza aldatu eta hobetu nahi duten emakumeen aldeko laguntza jaso nahi dugu ALBOAN GKetik. ALBOAN Jesusen Lagundiak sustatutako erakundea da.

Aurtego honetan, bildutako diru-laguntza **Peruko emakumeen garapena eta genero berdinketa** ahalbidetzen duten egitasmoetara bideratuko da. Limako eskualdean **Servicios Educativos El Agustino (SEA) erakundeak** genero inekitatearen aldea murriztu nahian dihardu. Emakumeei sostengua emanaz, euren trebakuntzaren alde lan eginez, eta aholkularitza papera betez, lan duin bat eskuratzeko aukera eman edo gizar-tean parte hartzeko ateaz zabaltzen dizkiete. Baina, azken finean, **emakumeak – emakume ausartak- badira beren garapenaren protagonistak.**

Martxoaren 19an korrikalariak San Prudencio (Arka Plaza) kaletik goizeko 11:30etan abiatuko dira eta, 6,2 kilometro egin ostean, abiapuntura itzuliko dira. Parte hartzeko 10€ ordaindu beharko dira, eta <http://www.alboan.org/lasterketa-emakume-ausartak> webgunean eman behar da izena. Korrikalarien kopurua 500ekoa da. Umeen kasuan, 11etan izango da lasterketa leku beretik irtenda, eta 3 €-eko dirulaguntza eskatzen dugu partehartzeagatik, lasterketaren egunean bertan ordaindu ahal dela.

Halaber, lasterketan parte hartu ezin izango dute pertsonak 0 dorsala erosi ahal dute eta horrela laguntza egin. Aurten, berrikuntza aurkezten dugu: enpresa bereko korrikalarien taldeak parte hartzea nahiko genuke, hau da, 2 eta 5 kideen tarteko emakume, gizonezko edo talde mistoak.

Ekimen hau ondorengo laguntzak jaso du: Arabako Foru Aldundia, Gasteizeko Udala, El Correo, Cadena SER, UDAPA, EGIBIDE, Laboral Kutxa, Gaikar Kirolak, Club La Blanca, BM Supermerkatuak, Ticketea eta Muxote Potolo Bat.

Argibide gehiago eta izen-ematea: <http://www.alboan.org/lasterketa-emakume-ausartak>

Informazio gehiago eta elkarrizketak eskatzeko:

Edur Mintegi. e.mintegi@alboan.org // 660 445 247 - 944 151 135